

## IBILIAZ EZAGUTU: MAITE NOZU, JAGON NAIZU




Bizkaian ondare natural ugari eta ederrak ditugu. Naturagune horietatik guztietatik, lauri babes ofiziala eman zaie, bertako baliabide naturalak eta edertasuna jagon asmoz Bizkaiko 4 naturagune babestuetan barrena ibiliko gara oraingo honetan: Gorbeia, Urkiolako eta Armañongo natura-parkeetan eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserban hain zuzen ere. Bertako altxorrez eta txoko ederrenez gozatzeko parada izango dugu Ibilbide guztiak izango dira 12-15 kilometro ingurukoak.

### **Martxoaren 30ean, Ipazter-Aulestia (12,00 km) Aldatuta!!**

**Zailtasuna: Erraza**


**Urdaibaik** baditu aski ezagun diren kostaldeko ingurune ederrak, hondartza, portu eta kai paregabeak hain zuzen ere. Oraingoan, baina, altueretara joko dugu bertako basoak, landak eta baserriak ezagutzeko asmotan.



### **Apirilaren 6an, Ranero-Turtzioz (12,00 km)**

**Zailtasuna: Erraza**

Bizkaia lurralde historikoan, mendebaldea dugu harribitxi ezezagunena. Huts hori zuzendu nahian antolatu da ibilbide hau **Armañon** natura parkean barrena, bertako inguruek eta bazterrek liluratuko gaituztelako segurtasunean.



## **Maiatzaren 4an, Otxandio-Arrazola (16 km)**

**Zailtasuna: Zaila**


Anbotoko Dama den gure Mari ahaltua lar molestatu gabe, ahaleginak egingo ditugu **Urkiola** inguruetako pagadiak, errekek, ur-jauziak... ezagutzen. Jendez hain gainezka ez dauden bidezidorrak baliatuko ditugu zeregin horretan.



## **Maiatzaren 11n: Murua-Ubidea (13,00 km)**

**Zailtasuna: Ertaina**

**Gorbeia**ko gurutzearen begiradapean berak babesten duen lurralde basati honetan murgilduko gara, hain arretatsu gordetzen dituen sekretuetako batzuk azalarazteko. Izugarri politak diren errekek, bideak eta bidezidorrak erabiliko ditugu horretarako.



**Informazioa eta testuak: Jokin Berrio**

- Egokiagoa edo ederragoa izate aldera, baliteke antolatzaileek etaparen baten ibilbidea aldatzea. *La organización puede modificar el itinerario de las etapas, siempre al objeto de mejorarlas.*

**Irteera ordua, goizeko 8:00**  
**Irteera tokia: Nafarroa parkina**  
**Prezioa: 8 € irteera bakoitza**